

Kontzejuak ez diren biztanleria-guneak

Administrazio-batzarrak (kontzejuak) ez diren biztanleria guneei dagokienez, honako egoera hauek daude:

- Gune batzuk administrazio-batzar baten barruan daude, eta horrelakoetan, administrazio-batzarra bera da izen ofizialak finkatzeko eskumena duena. Ad.: Aretxaga (Zuia) Murgiako administrazio-batzarraren barruan dago eta, haren izena aldatzea erabakitzea batzar horri dagokio.
- Inongo administrazio-batzarretan sartuta ez dauden herriak udalaren agintepean gelditzen dira, eta haien izen ofizialak finkatzeko eskumena udalarena da. Hauxe da, esaterako, Langara-Ganboaren kasua: Arrazua-Ubarrundiako udalerrian dago, eta ez dago administrazio-batzar baten barruan; beraz, udalak onartu behar du haren izen-aldaketa.

Aldaketa Toki Entitateen Erroldan inskribatu beharra dago.